

Joxe Migel Zumalabe

JOXE Migel Zumalabe hil zaigu. Bagene-kien aspalditxotik gaixorik zegoela, eroria osasunez, urtez abaildua. Nik neuk baren ikustaldiren bat egitera joateko gogorik; baina, egia esan, atzera eragiten zidan lagunarekin elkarriketa zaharrak berritu ezinak. Orain, joan denean, damu naiz.

Hautatutako bere euskaltzale-lekua goxoki eta enbarzorik egin gabe bete du Joxe Migel Zumalabe-k. Halakotzea izan da beti: batez ere, inorentzat nekagarri izan gabe, inori zegokiokeena kendu gabe, eta, ahal zenetan, nomahiri laguntza eskainiz. Euskaltzale asperrezina, ahaztuxea dugun humanismo kristau ireki baten ildotik ikusi zuen gure abertzaletasunaren euskalgintza. Karlos Santamariaren betiko adiskide miña, elkarren bide-lagun izan dira dagoneko emaitza ederrak eraman dituen ikusmolde horretan.

1961ean elkar ezagutu genuenetik, Joxe Migel-en ezaugarri nabari batek harritu izan nau: belaulaldi gazteekiko izan duen begiramenak, eta proiektu berrietarako erakutsi izan duen bihotz-zabaltasunak. Azken hogeitamar urteetan jasan edo sortu ditugun eztabaidarik gordinenetan ere, garbi izan du gazteen bidez irabazi behar zela etorkizuna; bestela, jai zegoela; eta asmo berriek bide berriak urratzen ez baldin bazituzten, euskaldungoak oso beltza izango zuela geroa.

Gerraondo zail hartan (1960 inguruan), bere ongizate profesional apal baina erosotik, beti jakin zuen inguruko euskalgintza pobregoa laguntzen eta hiritar ikasiaren itzalarekin babesten. Jakin aldizkari gaztean ongi sentitu genuen hori. Inolako laguntzarik gabe genbiltzazantzat, komentuetxetik kanpoko ekarpen ekonomiko eta sozial haren balioa gaur uler dai-

tekeena baino areagokoa izan zen, ez da ahantzirik behar. Arantzazu-ko eraikuntza berrietan bazuela esku Joxe Migel-ek, eta esku ona, gainera.

Donostiako ikastolagintzan ere presente egon zen Zumalabe jauna, batez ere Santo Tomas Lizeoaren irekiera eta lehen pausotan. Buruz eta gogoz, hezkuntzaren eta eskolaren esanahiz soziolinguistikoa geroko teoria guztien aurretik ere ulertuta zeukan. Eraberean,



USKARAREN ZALDUNA

IZAN DELA ESANGO NUKE, ONDOKOEN LANAK MAITATZEN JAKINEZ, AHAL ZUENETAN ESKUZABALKI EMANEZ, ETA BATEZ ERE EUSKALGINTZAREN ARAZO LARRIENAK ARGI IKUSI ETA ZEREGIN BERRIAK ULERTUZ.

euskal kazetariak —muga hertsia eta estuetan— egiteko berriei heldu zienean (gogora urte haitekako *Z. Argia*) inguruan zen, beti bezala, Joxe M. Zumalabe.

Eta enetzat hurbilagoko zerbait izan dena ere

HB ezlegezatu?

AZKEN egun hauetan HBren ezlegezatazeari buruzko polemika beroa sortu da gure artean. Gisa honetako polemiketan beti suertatzen ohi denez, azken finean gauzak hasieran baino nahasiago eta ilunago gelditzen dira. Horrela gertatu da kasu honetan ere, iskanbila guzti honen ondorioz, politika arazoetan bereziki jantziak ez dauden hiritar gehienek, HB ezlegezatzeko ahalmena, Gobernuaren baitan dagoela pentsa bait dezakete. Gauzak ez dira horrela, eta puntu hau argitzeko erreflexio juridiko labur bat egitea merezi duela uste dut.

1978ko Konstituzioak, alderdi politikoen konstituzionalizazioaren dituen testu bakarretariko dugu mundu osoan. Konstituzio onespenez horrek alderdi politikoen babespen berezi bat dakar berarekin. Hona hemen Espainiako Konstituzioaren 6. artikulua alderdi politikoei buruz esaten duena: «Alderdi politikoen politika aniztasuna adierazten dute, herri nahiazen hezkuntz eta agerpena konkurrizten dute, eta politikan parte hartzeko oinarriko tresnak dira...».

Edozein alderdi politikoa baten ezlegezatazearen prozesuan bi puntu izan behar dira kontuan: 1. Ezlegezatazearen arrazoiak, eta 2. Legez Kanpo uzteko erabili behar den prozedimendua.

Lehenengo puntuari dagokionez, 1978ko Alderdi Politikoen legearen arabera, alderdiek bi zigor mota jasan dezakete: disoluzioa edo behin-behineko etenaldia, eta horretarako bi arrazoi mota ezbedin egon daitezke. Alde batek, Zigor Kodigoak elkargo ilegalak bezala tipifikatuta dituen ihardueretan erortzea. Bestetik, bere barne erakuntza edo ekintzak helburu demokratikoen kontra izatea.

Lehen aipatu dudanez, alderdi politikoen politika aniztasuna adierazten dute, eta aniztasun horren ispiluak ideologia eta pentsamolde guztiz antonikoen eta kontrajarriak mantentzea eta defendatzea suposatzen du. Alde horretatik beraz, oso zaila da alderdi politikoa bat orokorki zigor kodigoaren menpean erortzea, horretarako biolentzia edo terrorismo ekintza politikoa bidea edo antzerako zerbait espreski deklaratu behar bait luke bere araudietan. Bestalde, erakundearen zenbait alderdikide edo buruzagien

aipatu nahi nuke. 1977an, UZEI sortzeko lanetan sartu ginenean, berriz ere ondoan izan genuen Joxe Migel. Urtebeteko prestakuntzen ondoren, lehendakari bat aukeratu behar zen, eta harengana jo genuen, itzal eta euskaltzale-tradizio baten eske. Ohi zuen apaltasun osoarekin baiezkoa eman zigun, egin nahi genuenaren berriak alde aurretik bere ohizko xalotasunez eskatu ondoren.

UZEIren lehenengo lehendakaria izan zen (1979ko maiatzetik 1983ko maiatza arte). Ez ziren garai samurrak izan: lehenengo, langileon eguneroko ogia bilatu behar zen; erakunde sortu-berri eta arriskatu baten mota guztietako buruhausteak ez ziren falta, eta, azkenik, ekaitz zakarren batek ere harrapatu gintuen azpian... Joxe Migel-ek, bere bakea batera galdu gabe, leuari zaharraren zuhurtziarekin aholkatu eta gidatu gintuen, eritasunak sobera ahulduta lehendakaritza hura guztion eskutan utzi zuen arte.

Boterea eta dirua hain maiteak ditugun garai hauetan, guztion gaiterikoa jauntasun eredugarria erakutsi izan du Zumalabe jaunak: benetan 'Euskararen Zalduna' izan dela esango nuke, bakoitzari berea aitortuz, ondokoen lanak maitatzen jakinez, ahal zuenetan eskuabalki emanez, eta batez ere euskalgintzaren arazo larrienak argi ikusi eta zeregin berriak ulertuz.

Joxe Migel Zumalabe-ri gure azken omenagurra egitean, iragan zail bateko euskaltzale-elkartasunaren mina sumatzen du batek bere barruan, eta adiskideari sekula itzali ez zitzaion euskal itxaropenaren indar isil eta iraunkor haua gorde nahiko luke gogoan.

JOSEBA INTXAUSTI HIZKUNTZALARIA

ekintza deliktiboak ez dezake inolaz ere alderdi osoaren iharduera kutsatu. Delitu baten errudun bakarria delitugilea bera da, eta inolaz ere ez bere alderdikideak eta gutxiago alderdi osoa. Konstituzio Auzitegiak garbi asko utzi du puntu hau orain arte arazo honi buruz luzatu dituen epai guztietan.

Prozedimenduari begira, bai Konstituzioak eta baita bere aplikatzen duten legeak ere oso garbiak dira. Alderdi politikoen behin-behineko etenaldia edo behin betirako disoluzioa erabakitzekeo kompetentzia duten erakunde bakarrak Epaitegi eta Auzitegiak dira soil soilik, beste inor ez. Beraz, azken egunetako iskanbila ikusiaz, beharrezkoa da bakoitzari bere eginkizuna zein den gogora araztea. Eta garbi gelditu behar da, arazo hau ez dagokiola ez Gobernuari, ez beste alderdi politikoei, eta inolaz ere ez, prentsa eta giza komunikabideei.

GURUTZ JAUREGI ZUZENBIDE KONSTITUZIONALEKO IRAKASLEA



JOSEBA ARREGI
Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailburua
EGIN

«Guggenheimen

birdimentsioak ez du ezer aldatuko Fundazioarekin egindako kontratua»



JOSE MARIA CUEVAS
CEO'ko lehendakaria
CINCO DIAS

«Legeak betearazi egin

behar dira eta berriandatu, puntu ilunak argitu eta hiritarrak presio ekintzetan behitu gisa hartzea galerazi egingo duen greba legearekin»



EUGENI XAPOXNIKOV
Eliko Indar Armater
komandanteburua
EL MUNDO

«Munduan segurtasunik eza

handituz doa»



OLIVER STONE
Zinegilea
EL PAIS

«Dan Quayle lehendakariak nire

adina dauka. Biok hirurogeiko hamarkada berean bizi izan ginen, baina ez zuen inoiz drogarik erre eta ez zen inoiz Viet-Namera joan, etxean geratu zen»

ZAKILIXUT

© Olariagak

